
FUNTSEZKO ELKARTEAK

- Gure proiektuak funtzionatzeko oso garrantzitsuak dira bazkideek ordainduko dituzten kuotak. Bazkideei esker, diru sarrera gehigarriak izango ditugu eta proiektua hobetzea errazagoa izango da. Gainera, beraiek onurak eskuratuko dituzte, izan ere, egiten ditugun emanaldietarako/erakusketarako deskontuak jasoko dituztelako.
- Hornitzaileei dagokionez, Donostiako udalari, enpresa sortzerako orduan, edo enpresa berri bati ematen dizkion diru laguntzak eskatuko dizkiogu. Enpresa eta pertsona ekintzaileentzako laguntzak, zehazki. Lau diru laguntzetan bereizten denez,(enpresa berrien sorrera sustatzeko, enpresa proiektu berritzaileak bultzatzeko, egokitze eta eraldatze aldian diren enpresei eta sektoreei laguntzak emateko eta lan-munduan sartzen laguntzeko lanik gabe diren horiei), guztiak eskatuko genituzke.
- Diru laguntza hauei esker, enpresa zerotik hasteko ezinbesteko laguntza izango dira. Izan ere, hauek gabe proiektuaren sorrera oso motela izango litzateke, baita funtzionamendua aurrera egoki eramateko.
- Beste hornitzaile bat, kartelak egingo dizkigun enpresa izango litzateke. Hauekin izango dugun hartu-emanaren bitartez, hileko informazioa erakustea errazagoa egingo zaigu, kartelak beraiek egingo baitizkigute. Amaia Guridi kartel sortzailea litzateke.
- *Gureak* marketin enpresa, beste hornitzaile bat izango da. Hauek promozioa egingo digute eta marketing-a beraien esku egongo litzateke.